

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Ukipen Ikuspegia-ren bezero nagusiak Mendizabala ikastetxeko erabiltzaileak izango dira. Edozein adinentzarako prest egongo da; izan ere, gure helburua adin tarte guztientzako, behar bereziak eta ez dituztenentzako berdin prest egoteko izango da. Ikasteko ere baliogarriak izan daitezke kartel hauek. Adibidez, Erasmuseko ikasleak etortzen direnean, ikasi dezakete nola esaten diren hainbait hitz euskeraz.

Hasiera batean Mendizabala Ikastetxean aldaketak egitea izango da, Ikuspen Ikuspegia Mendizabalako ikasleak garelako eta momentuz egunero ikusten ditugun arazoak aldatzea izango da. Horren ondoren Vitoria-Gasteiztik zabaltzea nahiko genuke ideia esanguratsua delako edonor parte har dezan joaten den leku guztietan.

Gure bezeroen ezaugarriei dagokionez, lehen esan bezala edozein pertsonarentzako prest egon behar da. Beraz, gure produktua edozein bezero motarentzat denez, berdin dio adinekoa edo adin txikikoa den edo behar bereziak dituen, erraztazuna izateko guztientzako.